

Goibek kale

Elgetako aldizkaria abendua 63zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

aretoa bete-bete

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrió (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Erosi baino lehenago galdera hauek pentsatu:

Gabonak, erregeak, merkealdiak... direla eta abendua eta urtarrilean batzuk beste batzuk baino neurri haundiagoan publizitateak bultzatuta edo eta ohituraz, erosteari ekiten diogu, askotan burugabeko erosketetan ereriaz. Hona hemen damutu gabeko erosketak egiteko zenbait aholkutzak:

1- BENETAN BEHAR DUT? edo propagandak hori pentsatzera behartzen nau, telebistak, etab.

2- INGURUGIROAREN-TZAT KALTEGARRIA OTE? egu-berritako zuhaitzak, ezbeharrezko azalak, PVC, CFC-ak, etab.

3- "MADE IN EUSKAL HERRIA" DA? edo urrunetik ekarritakoak dira, hemengoak eta freskoak ez dira, etab.

4- BIRZIKLAGARRIA ETA EKOLOGIKOA DA? plastikoaren ordez beira edo papera, ekoizpen garbi batetik dator, etab.

5- OSASUNARENTZAT KALTEGARRIA OTE? etiketan informazio nahikoa agertzen da, kontserbanteak, etab.

6- EGIN ZUEN LANGILEA EGOERA JUSTU BATETAN ZEGOEN? edo kontrato zaborra zeukan, ETT batetan lan egiten zuen, etab.

7- MUNDUKO BESTE HERRIEKIKO ELKARTASUNA ADIERAZTEN DUT? edo hauek esplotatzen laguntzen dut, merkataritza justua, etab.

Maia ingurugiro taldea

Mikel Urdangarin

Azaroak 17xan luxuzko kontzertua euki giñuan Elgetan, Gaztetxiak antolautu. Mikel Urdangariñen azkenengo kantuak entzun giñuaz bertan. Milla esker, holako antolakuntzak eskaintzearenera

Elgetar bat

Gabon zoriontsuak

Goibekokalek gabon zoriontsuak eskaiñi nahi dotsuez.

Hurrengo urtia oraingua baiño hobia izango ete da? Komunikaziño zerbitzuei dagokionian behintzat ez dogu uste. Hau esateko Goibekokale, Goienkarixa eta GoiTB dittugu goguan. Bi agerkari dakaguz paper idatzixan eta guk esatia askotxo bada be, uste dogu bixak dirala duiñak. Gaiñontzeko herrixetan GoiTB be ezagutzen dabe eta gure turnua noiz helduko zaiñ gare oiñ.

Akabo zaiñ egotiak!!!! abenduaren 28ttik aurrera GoiTB ikusiko da Elgetan. Momentuz probatxo batzuk baiño ez dira, hala eta be, hor egunian ikusten dabenak hurrengo egunetan be ikusi ahal izango dau. 5. kanalian hartu biharko da eta hau sintonizatzeke Goibekokalek tekniko bat jarriko dau soldatapien, hala gura dabenai bere etxeraiño jua, eta GoiTB ikusi ahal izateko.

Abenduaren 28xa izango da egun klabia. Hor egunian plazara gerturatu eta galdetu han darenei zer egin bihar dan. Segiduan hartuko dozue GoiTB zuen etxian.

Bittartean, ondo pasau gabonak!!!!!! Gutxi gastau eta bueltak amari!!!!!!

Erredakzio kontseilua

ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR


ER

Empresa Registrada

ER-07147/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabilioi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Nork nahi du bizitza hobea

Noizean behin telebistan atentzioa ematen didan iragarkiren bat agertzen da. Batzutan, hauek ikustean, mezuarekin bat egiten dut eta iragarkia atera duen etxearekin halako konplizitate bat sortzen zait; hau da, eskeintzen didatena ontzat ematen dut.

Badira beste iragarki batzuk, guztiz kontrako sentimenduak sortzen dizkidatenak; agertu orduko, telebistako mandoa gertu badut bereala mozten ditudanak. Hauetako batek goian jarritako leloa darama. Honezkerok, denok ikusia dugula uste dut. Bai, hori da, fruta kaxa bi lurrean bata bestearen gainean ipini eta gora igoz lelo hori lau haizetara zabaltzen duena. Noski, denek baiezkua ematen dute atzamarra jasoz, inor ez baita tontoa mundu honetan, denok nahi dugu gure bizitza hobetu. Eta hemen, momentu honetan, sortzen zait niri galdera. Gizakia, bere bizitza ustez hobetzeko bide honetan, noraino da heltzeko gauza?. Azkenaldi honetan, sekulakoak egin behar dituztela entzuten ari gara: bateko autobidea, besteko autopista, "Y" dontsu hori ere hor dabil, hara eta hona... Benetan beharrezkoak al dira hauek denak?. Nire erantzuna eta beste askorena ezezkoa da. Egundo imajinatu ez ditugun triskantzak ikusteko aukera izango dugu gaurtik aurrera; hori bai, hauek denak, Euskal Herria munduko nazioen artean gorengo postuetan mantentzen lagunduko digute eta gure bizitza izugarri hobetuko da. Hamaika entzuteko jaiok gara.

Daniel Gilegi Etxebarria



Herrimina

Ez dut herriminik bi minuturo sentitzen, ezta egunero ere. Atlantikoaren beste aldean, EEBBetan, egon arren, ezin kanta Hertzainak hain espe-

tua egin zuen abestia. Eta, ez dakit hori ona edo txarra izango den, baina kezkatzen hasia naiz sentitze falta hau dela eta. Izan ere, beti inbidiatu izan ditut erbesteturik dauden poetak. Ez atzerrian daudelako, baizik eta sorterritik mila-kilometrotara egon arren, aberriarekiko lotura berezi bat azaltzeko gai direlako. Eta ni ez naiz poeta, baina apatrida sentitzen naiz beraien ondoan. Neruda, Alberti, Benedetti, Sarrionandia...denek izan dute zerbait esateko, eta beraien poemak hamaika aldiz hunkitu naute Euskal Herrian nintzen bitartean. Baina orain, atzerrian egonda, ez dut atzekorik sentitzen. Eta poeta horiek nik ez ditudan hainbat arrazoi politiko zeuzkatela konturatzen naiz gainera.

Dena den, kontu politikoak alde batera utzita, Chicagora etortzean melankoliaz bildu eta agian, zertxobait gehiago idazteko gai izango nintzela uste nuen. Oker nenbilen. Ez dut ezer idatzi, ohiko eskutitzez aparte. Ez poemarik, ezta Tolosako babarrunen aldeko manifesturik. Ze, nire urdaila ere, apatrida sentitzen hasia da. Azken batean, sushia, pil-pil erako bakailoa baino gusturago jaten dut.

Nire kontsolamendu bakarra, oraindik etxetik kanpora denbora gutxi daramadala pentsatzea da. Chicagok hainbat gauza berri eta ezberdin ezagutzeko aukera ematen dit. Janari japoniarretik Ravi Shankaren musikara edo Rumiren filosofiara. Eta egia esan, ez dut asperetzeko, ez herriminik sentitzeko betarik izan. Hala ere, egunen baten babarrunak eta trikitixa faltan botako ditudanaren esperantza daukat. Eta orduan, bai. Orduan, sekulako poesia edo kolaborazioa edo dena delakoa idatziko dizuet. Bitartean honekin eta nire zorion opatzearekin konformatu beharko duzue. Urte Berri On guztioi!

Ibane Abasolo

kutxa gizarte-ekintza obra social



Eusko Jauriaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du

Goibeko
k.e.
tel. 943 78 90 85
Salbador 2, Kultur Fltxea
goibeko@topagunea.com

Aldizkari honen argitaratzailea



Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Ezenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Lema S.A. Eibartik Elgetara

ISO 14.000 ingurugiro araua lortuko du datorren urtean

Abendu bukaerarako lekualdaketak guztia egingo dute, Eibarko pabilioitik makinak eta abar ekartzen ari dira. Lema S.A. urte dexente daramatza dekoletaiaren munduan. Jabier eta Iñakik kontatu zigutenez, beraiek 1.941etik dabiltzan arren, beraien birratoinak izan ziren 1.928an hasiera eman ziotenak. Guztira 72 langile ditu Lema S.A.ak. Pabilioi berriak 5.500 metro karratu inguru izango ditu, hauetatik 4.100 industriak berak izango ditu, 150 ofizinek eta azpian 1.100 izango dira.

Eibarren ez zuten lekurik, eta hainbat aukera aztertu zituzten. "Eskaintza ekonomikoak antzerakoak zirela ikusita, gertutasuna eta Patxi alkatearekin edukitako hartu-emanak eta berak erakutsitako interesak erakarri gaitu".

Lema S.A. autoentzako, etxetresna elektrikoentzako, informatikarako... piezak egiten dituzte. Egiten dutenaren %50 kanpora bidaltzen dute, Frantzia, Alemania, Holanda, Suitza, EEUU, Mexiko, Brasil eta beste hainbat herrialdetara.



Lema S.A. iPagatzako industrialderako enpresa garrantzitsua.

Auditorium berria beteta

Abenduak 16an "Lotsa-gabe" antzezlanaren ikusteko Auditorium berria bete egin zen. Aspalditik ez zen Elgetan antzerkirik ikusteko aukerarik. Kultura Batzordeak antolatutako ekintza hau ikustera ia 300 pertsona batu ziren. Sexu harremanen gainean egindako antzerkia ikusteko aukera izan zuten beraz bertaratu ziren haur, gazte, nagusi zein jubilatuek. Hurrengo, tanborradako argazkiak ikusteko aukera izango da auditorium berrian. Kultura batzordea fin-fin dabil erakusketak txukun jaratzeko lanean.



Jende ugari batu zen antzerkia ikustera.

GRUPO

IFA

Produkturik onenak,
prezio onenean

ALDI

Tel:
76 80 98.

Andoni Bolinaga

METALAK

FS718

Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Badator Olentzero

Haurren gutunak jasoko ditu plazan 19:30etan



Haurten zaldian edo traktorean edo helikopteroan etorriko den umeen ametek esango dute.

Aurten, urtero bezala Kultura eta Irakaskuntza batzordeek antolatutako Gabonetarako ekintzak.

Abenduak 23an, arratsaldean Krismas lehiaketan parte hartu dutenen lanak ikusteko aukera izango dugu. Arratsaldeko 17:30etan, Maya-koek antolatutako duten Belen lehiaketako emaitzak

jakingo ditugu. Ondoren bi lehiaketetan parte hartu duten haurrentzat txokolatada izango da. Arratsaleko 18:30ak inguruan Olentzero etorriko da, herriko haurren gutunak jasotzera.

Abenduak 24 eta 25ean Auditorium berrian, jaietan izandako tanborradaren erakusketa izango dugu.

“Egin zaitez bazkide” kanpaina martxan

Goibeko Kultura Elkarteak 130 bazkide egin zituen iaz. Aurten bazkide berriak lortzeko kanpaina martxan jarrita dauka. Bazkide hauei esker sortu ditugu Goienkaria eta Goiena Telebista. Bailerako notiziak euskaraz lantzeko egitasmoan Goibeko Elkarteko bazkideak ezinbestekoak izan dira eta horrela iza-

ten jarraitzea espero dugu.

Bailerako telebista herrian ikustea, Udaltxeak Goiena-rekin sinatu beharreko akordiori itxaroten dago. Momentuz, bailerako berriak, astero gure etxeetara iristen den Goienkariaren bitartez jasoko ditugu. Bailerako notizien berri ematen

digun astekari hau gure etxeetara heltzeko derrigorrezkoa izan da bazkide egindakoek emandako laguntza eta Proiektu hauekin aurrera jarraitzeko ere derrigorrezkoa izango delarik. Bazkide berriak egiteko, plazan jarriko da gabonetako egunetan Goibeko K.E.aren mahaitxoak. Bertaratzeko aukera ez due-

nak Goibekokaleko erantzungailuan, 943.78.90.85 utzi dezake mezua eta Goibeko K.E.koak jarriko dira zuekin harremanetan. Bazkide direnekin ere jarriak dira harremanetan, kontu bidezko bazkidetza berrizteko eta harremana izandako ia ehuneko ehunak bazkide izaten jarraitzen du.



Udarako nekazal turismoko etxea Barreneguan

Duela bost urte baserriaren zati haundi bat erre egin zitzairen. Erre zen zatian eraikiko dute Nekazal Etxea. Familia ilusio handiarekin dago eta abuztuan irekitzeko asmoa daukate.

Datorren udarako martxan izango da Nekazal Etxea. Baina dagoeneko nahikoa buruauste ekarri die jabe-
ei, hasieratik tramite ugari egin behar dira-eta.

Nekazal Turismo moko etxeak behar den bezala egokitzeko dirulaguntzak ematen dituzte. Dirulaguntzak baserriarrak betetzen dituen pun-

tuen arabera izaten dira. Adibidez baserriarraren adina, landatzen dituen sailak, dituen abere kopurua... ondoren lanak aurrera eramateak izango duen aurrekontuaren % 20-30 inguru ematen dizute diputaziotik.

Agustin Beretxingak esan zigunez, oraindik ez dago guztiz zehaztuta etxeak izango duen egitura. Nekazal turismoko etxeak sei gela izango ditu, baimenduta dagoen gehingoa. Gela hauek bikoitzak izango dira eta bakoitzak bere komuna izango du. Baserriaren ingurua konpontzeko asmoa ere badaukate,



Nekazal turismoko etxearekin batera, pottokak, aparkalekuak... familientzeko leku aproposa.

aparkaleku bat, jardinak eta ziburak.

Eraikuntza lane-tan hasteko baimenak

emanda daude. Aurki ekingo diete lanei, abuztuan irekitzeko asmoa daukate eta.

Urteari amaiera emateko mendira

2.001 urtea urte berezia izango da Gaztetxerako, datorren urtean bost urte beteko ditu eta. Urte berezi honetan sartu aurretik zenbait ekintza antolatu dituzte abendu amaierarako.

**Abenduak 31n Aizkorri-
ra**

Urteari amaiera emateko Aizkorri mendira irteera antolatu dute herriko gazteek. Irteera goizeko 9:15etan izango da plazan

eta eguerdiko 12:00etan txanpana banatuko dute Aizkorri. Datorren urtean bost urte beteko ditu Gaztetxeak. Hastera goazen urte berezi honi hasiera eman nahi diote,

ekintza hau berreskuratu-ta.

**Abenduak 22an, Punk
kontzertua**

Urteko azken kontzertua abenduak 22an izango

dugu Gaztetxean. Matedero eta Malestar taldeak arituko dira kontzertu horretan. Kontzertua 22:30etatik aurrera izango da.

Jarri zure iragarkia

Tel:943.78.90.85

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Mikel Arantzeta (39 urte) Bihargiña

Nun egitten dozu lana? Bergaran, Katean.
Zenbat denbora zoiatz bertan lanian? 11 urte egingo dittut oingo urtian.
Lanez aldatu bihar baziñu, beste zer egingo ziñuke? Gure taillarrian ez dagonian lanik beste taller batera bialtzen doskue, honekin esan nahi dot bertan be askotan aldatzen dotela lanez.

Sekula pentsatu dozu herrira etortzia bizitzera? Ez, sekula ez dot pentsau hortan.

Ze aldeko eta kontrako dauka basarrixan bizitziak? aldeko oso inportantia, bertan dagon pakia eta kontrakorik ez dauka.

Herrixa aldatzekotan nora juango ziñake? Ameriketara, han famili-xako asko dakadaz-eta.

Akordatzen zara andra bati emondako lehenengo muxuana? Bai, oso ondo gaiñera, aspaldi izan zan.
Ezkontzeko asmorik sekula euki dozu?

Ezkondu ezkondu, ez; lagundu bai baiña ezkondu ez.

Zer egitten dozu zure denbora librian? Jai egunian, lehenengo gauzia Pagatzara ogixa eruaten dot eta denboria baldin badakat, kotxia hartu eta Elorrixora juaten naiz.



Elorrixon Bilborako autobusa hartu eta Bilbon Plentziara arteko metrua hartzen dot, eta bertan pasatzen dot eguna.

Daukazunetik zer baloratzen dozu gehixen? Nere kotxia.

Preziua begiratu barik nora juango ziñake bazkaltzera? Self-service batera.

Ez dozun bete amets bat? Asko, ze ametsetan asko egitten dot.

Negar egitteko gizona zara?

Bai. Zergaittik? Bete eukitzen dot motibo garrantzitsuren bat.

Galtzetiñak zurixak ala koloredunak? Normalian zurixak baiña koloredunak be erabiltzen dittut.

Zure bizimoduan oso inportantia izan dan pertsona bat? Asier,

Iraunkorreko nagusi bat.

Zer da sekula barkatuko ez ziñukena? Gezurra esan eta

engaiñatzia.

Beste rebista batzuk irakurtzen dozuz Goibekokaletik aparte? Bai, Diez Minutos, Hola...

Zeñi egingo zontzake holako entrebista bat? Gurutze Sestokuai.



ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETALA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA
ASTI

San Roke 6
tel: 768168.

Ezagutzen dozu "Espaloia" proiektua? Zer pentsatzen jatzu?




Josu De Vega
Bihargiña (40 urte)

Ezagutzen dot "Espaloia" proiektua eta ona da. proiektua osorik aurrera eruatia zailla ikusten dot, batzuk trabak jartzten dabiz eta. Pazientzia asko eukitzia komeni da eta alde danak alkarrekin berba egittia. Momentuan, gurasuek trabaren bat ikusten ei dabe eta Udaletxiak be ez dau definidu proiektuan zein modutan parte hartu bihar daban. Danok batera akordio batera heldu bihar gara proiektua oso ona da eta.

Bai piskat ezagutzen dot eta ondo ikusten dot. Ibili izan nahi berba egitten "Espaloia" proiektuan gaiñian eta ondo pentsatzen jata. Goibe kultura Elkartiak areto barrixa gestionatzia bide egokixena pentsatzen jata.

Manu Saratsua
Bihargiña (56 urte)



Bai ezagutzen dot proiektua eta proiektua bera oso interesgarria eta osua pentsatzen jata. Ados nagoela esango nuke. Beste gai bat da nola koordinatu proiektua eskolako lokalean egotea taberna eta jatetxea eskolan egotea arazoak izan daitezke-eta. Gurasoek eta Goibekok hitzegin egin beharko lukete akordio batera iristeko.

Manolo Cainzos
Bihargiña (58 urte)



Lierni Mendizabal
Bihargiña (28 urte)

Kultura aldetik herrira-ko ekintza gehixau egotia oso ondo pentsatzen jata. Eta "Espaloia" proiektu horrek ekintzak ekarriko dituen ez ondo ikusten dot. Ez dotsat hasiera baten behintzat pegarik ikusten aurrera eruateko.

Proiektua gaiñetik ezagutzen dot eta oso ondo pentsatzen jata.

Pentsatzen dot "Espaloia Kafe Antzokixan" proiektua haundixa izan leikela Elgetarako. Baillara guztirako zabaltzia onena izan leike.

Holako kultura proiektu bat oso ondo ikusten dot.

Mirari Larrañaga
Etxeokoandria (41 urte)



Bai ezagutzen dot "Espaloia Kafe Antzokixan" proiektua eta oso ondo pentsatzen jata. Proiektu honek herrixan kultura ekintza gehixau egotia ekarriko dau eta. Ez dotsat Goibeko K.E.k proposatzen daban proiektuui iñungo pegarik ikusten.

Maria Angeles Cristobal
Etxeokoandria (55 urte)



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

GABONETARAKO

...eta kitto! (EIBAR), Goibekokale (ELGETA),
Drogeteniturri (ERMUA) eta Pil pilean (SORALUZE)
aldizkariok kaleratutako gehigarria.

11.200 ale kaleratuko dira,
37.000 irakurle ingururendako.

erosketa

GIDA



PUBLIZISTA: Belen Ulazia
TELEFONOA ETA FAXA: 943 20 67 76

MILAR LARRAMENDI

Estaziño 6
943 20 30 11



- Telebistak
- Bideoak
- Musika ekipoa
- Elektragailuak
- Sukaldeak

KAREAGA

Bidebarrieta 10
943 20 80 45



- Erlojuak
- Belarritakoak
- Eratzunak
- Gargantilak
- Lepokoak

CASAMANIA

T. Etxebarria 14
943 20 42 59

- Etxerako osagaiak
- Opariak
- Altzariak



LIDE

T. Etxebarria 10
943 20 21 71

- Moda eta osagaietan denetarik opariak egiteko



ARRATE LORADENDA

Bidebarrieta 64
943 20 38 32



- Teleflora zerbitzua
- Lore-sortak
- Barruko dekorazioak

VALENCIAGA

Zuloagatarren 1
943 20 22 33



- Emakume eta gizon moda
- Lentzeria eta osagaiak

AGUIRRE

Estaziño 10
943 20 22 11

- Diseinu eksklusiboak
- CENTOVENTUNO markaren banatzaile bakarra



ZAGORA

Bidebarrieta 1
943 12 09 19

- Azken nobedadeak
- Nobelak
- Ipuinak
- Haurrentzako bideoak
- Gai ugari



TRINMER

B. Sarasketa 2
943 12 73 50

Telebista digital guztien INSTALATZAILE OFIZIALAK:

- Canal Satélite Digital
- Uía Digital
- Quiero TV

OFERTAK ETA INFORMAZIOA:
www.trinmer.com

eskaintza berezia:

¿Quieres?

Quiero

Telebista + Internet
6 hilabeterako

5.000 pezetagatik bakarrik!!

IZADI

San Juan 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak



LETRAS

Estaziño 9 behea
943 20 87 69

- Makinaz egindako bordatuak
- Etxerako lentzeria



YRAOLAGOITIA

Bidebarrieta 20
943 20 16 17

- Jaiotzak
- Jokoak
- Liburuak
- Eskolarako materiala



ETXAIDE

Arragueta 10 / 943 70 04 85

- Egurrezko jostailuak
- Zumezko kutxak eta otarrak
- Markoak
- Ispiluak
- Siloiak
- Bionboak



MARRODAN

T. Etxebarria 24
943 20 73 04

- Lehen mailako urrea
- Lepokoak
- Pultserak
- Eratzunak
- Belarritakoak
- Erlojuak
- Zilarra





TUSURI

Errebal 19
943 20 73 23

- Oparietarako artikulua
- Zilarra
- Arropak...



LAKUESTA

Calbeton 23
943 20 10 61

SORALUZEN

Santa Ana 22 behea
943 75 30 59

- Optiko-optometrista
- Opariak egiteko aukera haundia



DIRDAI

T. Etxebarria 21
943 20 75 33

- Urrea, platinoa eta diamanteak
- Diseinu berriak

dirdai



PASARRATOS

Ego-Gain z/g
943 20 71 29

- Untzien maketak
- Panpin etxeak
- Denetariko maketak
- Puzzleak
- Kometak
- Irratiz kontrolatutako auto eta hegazkinak



PICTEL

Isasi 17
943 82 03 81

- Telefonía mugikorra eta fijoak
- Telefoniarako osagaiak
- RTB, RDSI, ADSL lineak



Telefónica
Movistar

Telefónica
CONSULTOR HOMOLOGADO

ARRIETA

T. Etxebarria 14
943 20 69 29
Errebal 22
943 20 20 24

- Azken moda gizon eta emakumeendako
- Kanpotik zein barrutik jazen zaitugu: lentzeria eta osagaiak



BLANCA

Isasi 16
943 20 88 47

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak



ARANBURU

Errebal 5 / 943 20 72 32

- Alkondarak
- Jertseak
- Estankoa
- Eskolarako materiala
- Jaiotzak
- Jakak (Levis, Lee Cooper, New Caro, Bomber)



ARIZONA JEANS

Isasi 35 / 943 20 78 16

ERMUAN San Pelayon

ANSA

Untzaga 8
943 20 76 21

- Bitxiak
- Erlojuak
- Zilarra
- Konponketak



LAUMAR

Bidebarrieta 1
943 20 16 26

- Landareak
- Lora sortak
- Zentru naturalak eta artifizialak
- Teleflora zerbitzua



ZUBIAURRE

Calbeton 3 / 943 20 16 60



- Surfa
- Kirol jantziak



MIXPIL

Bidebarrieta 18
943 20 23 35

- Gizon eta emakumeendako lentzeria eta kortseteria

GUBY

J. Etxeberria 2
943 20 15 51

- Gazteendako moda



VIVES

Errebal 15
943 20 18 30

- Gabon zoriontsuak bezero eta eibartar guztioi!!



Espaloia, orain edo inoiz ez

Aspaldi aurkeztu zuten Goibekokoek Espaloia kultura proiektua udaletxeko kultura batzarrean. Harrezkero, hainbat berba, bilera etab. egin dituzte bai Udaletxeko jende, guraso elkarre... Taberna dala, eskola orduak gora, eskola orduak bera, bideragarritasun txostena, dirurik ez dagoela, proiektua zenbait pertsonena dela, taberna antipedagogikoa dela... Gauza da momentuz gauzak geldirik daudela, ez aurrera ez atzera.

Bitartean, joan zen zapatuan antzerkiarekin leporaino bete zen areto-auditorioa hor dago. Badirudi aretoak onarpen ona izan zuela. Bestalde, Udaletxeak, diru mordo bat inbertitu du bertan eta aretoak erabilpen bat ematea eskatzen du oihuka. Luxu handiegia da Elgeta batendako horrelako areto bat horrela hutsik izatea. Ale honetako erreportaian kultura proiektua aurrera eramateko Goibekotik sortu den talde eragileari proiektuaren gaineko azalpenak eskatu dizkiegu. Aldi berean udaletxera joan gara, herriko alkate den Patxi Basauri eta kultur-zinegotzi den Bittor Gallastegik proiektu horren gainean duten ikuspuntua ezagutu asmoz.

Agurne B. , Iban R. eta Etor S. (Goibekoko talde eragilekoak): "Herri guztiarendako aberasgarri izango den kultura proiektua da Espaloia egitasmoa"

-Zer da "espaloia" proiektua?

Herri guztiarendako aberasgarri izango den kultura proiektua da. Argi utzi nahi dugu kultura proiektu bat dela eta ez besterik. Ez da pertsona batzuk aurkezten duten proiektu bat. Behin areto bat izanda areto horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko aurkeztu dugun proiektu global bat da.

Bertan, kultura elkarte garen aldetik, herriaren gehiengoa inplikaturik izango genuke.

-Zerk eraman zaituzte proiektu hau aurkeztera?

Bi gauza egon daitezke: alde batetik, aretoa hor dago, inbertsio garrantzitsu bat egin da eta hori ezin da hor geldirik izan.

Miloi pila bat gastatu dira orain hiltzen uzteko; Bestalde, Elgetan kultura aldetik nahiko hutsune dago, eta orain jadanik areto bat eukita aukera ezin hobea dugu. Ikusten



dugu edade tarte baten gabezia batzuk daudela. Batetik, haurrentzako, gurasoak lan handia egiten dute; bestetik, Gazteak oso ongi betetzen ditu gazteen kultura-heziketa ekintzak, eta batzutan jende horrengana heldu izan da, baina gazteak bere mugak ditu. Jende profesionala izan arren ez daude soldatapean eta etengabeko militantzia...

Elgetan egiten diren aktibitateak batzeko gune aproposa ere izan daiteke, haurren ekintzak antolatzeko aukera dago, jubilatuen ekintzak... proiektu honetan batera daitezke guztiak. Koordinazio zentru bat izango balitz bezala funtziona dezake, beti ere kultura teknikoarekin batera.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

-Zein harrera izan du proiektuak herrian? Udaletxean?

Proiektua ongi onartua izan da orokorrean. Proiektuaren barruan dagoen tabernak ezadostasun batzuk egotea dakar. Gure proiektuaren zati da taberna, etekin iturri izango da guretzako, izan ere, Elgetak potentzialki ez du ematen Udaletxeak hori guztia gestio-natzeko lain. Badirudi dirurik ez dagoela. Behar-bada, Udaletxeko kontuak aztertu beharko genituzke eta zenbat diru dagoen ikusi, baina oraindik bideragarritasun txostena iristear dago eta ez dakigu zein zifratan mugituko garen.

-Zein leku daukate beste taldeek proiektu honetan?

Gure beste. Guk ez diogu mugarik inori jartzen, guztiekin hitz egiteko eta elkarlanean aritzeko prest gaude. Edonork ateak irekita ditu. Hau ez da pertsona konkretu batzuen proiektua, nahi duen guztiek parte hartu dezakete.

-Herria proiektuaren gainean nahikoa informatua dagoela uste duzue?

Uste dugu informazio hutsune bat egon daitekeela. Jendeak surrumuruetan entzundakoa daki eta askotan aldrebeskoa da. Ikusten badugu proiektu hau aurrera doala informatzen hasi beharko ginatke, kanpainen bat egin... baina momentu honetan ez da garrantzitsuena, izan ere, ez dago ezer onartua eta ofizialki ez dugu gure proiektuarekiko jarrerarik jaso agintarien aldetik.

-Lokala Goibekok hartuko balu nola gestionatuko luke?

Lehen esan bezala guztiekin kontaktuz. Talde eragileak, Udaletxeko jendea, guraso elkartekoak, gaztetxekoak... egongo lirateke. Alde batetik komentatu da talde eragile bat egotea jadanik dagoen bezala, oraingo gauzak eramateko, gauzak eztabaidatzeko... Egokiena soldatapeko lagunak izatea izango litzateke mantenimenduz arduratzeko... Baina, noski, dirua behar da, eta guk ez dugu ikusten beste aukerarik taberna ez bada. Eskertuko genuke nobaitek alternatiba erre-al bat eskainiko baligu.

-Beharrezkoa da taberna? Zein eratako taberna izango litzateke?

Diru iturri den aldetik beharrezkoa da. Gero tabernak bilgune bezala ere joka lezake. Uste dugu kontrakoa esaten ez diguten bitartean eskola orduetatik kanpo ez legokela arazorik. Dirua eguneroko menuetatik aterako genuke printzipioz, ez genuke taberna bezala

Jendeak surrumuruetan entzundakoa daki eta askotan aldrebes

irekiko eskola orduetan. Eskola orduetan bakarrik jaten emango genuke eta gehinbat umeak ez daudenean, hau da, 12:30etatik 14:00 edo 15:00etara. Argi dagoena da Udaletxearentzat guk edo beste talde batek hartzen ez badu lokala gastu handi bat dela. Guk jorratu dugu bidea eta nahikoa



Talde eragileko Agurne, Etor eta Iban Espaloia proiektua azaltzen.

enfrentatu gara jadanik. Uste dugu Udaletxeak gogotsuago parte hartu beharko duela eta irtenbideak aurkitu. Alde edo kontrako arrazoiekin egindako eztabaida bultzatu beharko luke Udaletxeak taldeekin.

-Goibekok aretoa dagoen moduan hartuko luke?

Guk printzipioz areto hori ondo egokitua guraso genuke. Oraindik gauzak falta dira aulkiak, goiko sare-metalikoa... azken batean kultura ekintzak era egokian eramateko beharrezko materiala. Udaletxeak egin beharko luke hori. Guk lagunduko genieke materiala kultura elkartearen bidez eskatzeko edo beste era batera. Honen gainean ere hitzegin beharko litzateke eta era errentagarriean aurrera eraman.

-Jakina da guraso elkarrekin izan dela trabak jarri dituenak.

Beno, proiektuan gainean baino uste dugu tabernaren gainean dagoela desadostasuna. Izan ere gehiengoa, guztiak ez badira, proiektuaren alde daude helburu aldetik eta oso ongi ikusten dute. Hala adierazi digute behintzat. Ez digutena

esan da zergatik dauden proiektuaren zati baten aurka. Arrazoiak entzuteko irrikitan gaude eta oraindik ez dugu azalpen bat bera ere jaso. Uste dugu bai guri eta bai herriari ere ezetzaren zergatiak azaltzea ondo legokeela, ezetz hori borobil-borobila bada, behinik behin.

-Ez al da aretoa handiegia Elgetarentzat?

Ez. Gure ustez, handiak txikiarena badu, baina txikiak ez du handiarenik. Areto hori zatitu daiteke eta batzuan oso bezala erabili antzerki egunean erabili zen moduan. Adibidez areto horrek dantza ikastaro baterako balioko luke, berogailua izango genuke, soinu ona, lokala garbi-garbi... Gainera areto hau legea betetzen duen areto bakarra da Elgetan. Orain, diru piskat sartu beharko da hori egokitzeko, baina eguneroko erabilera ematekotan Udaletxeak diru sartzeari posible ikusten dugu. Gainera, errealitatea da hori jadanik hor dagoela eta ez dagoela bueltarik. Oraindik bizirik gabe dago, hala ere, barkaezina litzateke horrenbeste kostatu den aretoa hilda egoten jarraitzea.

Alkatea: "gestio mixtoa da egokiena: Udaletxea-Goibeko"

- Zer egoeratan dago auditoriuma? Auditoriuma amaituta dago ehuneko ehunean. Hala ere, argiak, soinua, mobiliaria...falta dira. Orain falta diran osagarri garrantzitsuenak zerrndatu eta ipintzen joatea falta da.

- Aurrera begira nola gestionatuko da? zehazteka dago. Momentuz Goibeko K.E.-k aretoa gestionatzeko proiektua aurkeztu du. Gestio egokiena, gestio mixto bat egitea litzateke Kultura aldetik Udaletxeak ekinga batzuk aurrera eramanez Argi eta garbi izan behar dugu, ordea, Udaletxeak limiteak dituela mila biztanleko herri bat baikara eta aretoa egiteko esfortzua haundia izan baita. Ego-

kia ikusten dut Goibekok, edo beste norbaitek lokalaren gestioan parte hartzea,. Horrela aretoan egingo diren ekintzak bikoiztu egingo dira eta hau oso interesgarria da herrirako. Maala inguruan sortu nahi dugun kultura eta aisialdi "konplejurako" areto hau bultzatzea garrantzitsua da.

- Ezagutzen duzu "Espaloia" proiektua? Bai. Zein uste daukazu? Interesgarria Proiektua oso ona da eta tabernako irabaziak kulturari inbertituko dituzte. Horrelako talde batek errezago egingo ditu kontaktuak beste elkarte eta taldeekin. Jendearengatik jasoko duen harrera ere hobea izango da, orokorrean gure taldean ados gaude.



- Ikusten diozu pegarik proiektuari? Atera diren pegak benetako analisi bat egin gabekoak dira. Polikiroldegia egin zenean, eskolaurrea han zegoen eta ez zegoen pegarik. Eskola eta auditoriumaren sarrerak ezberdinak dira eta distantzia antzerakoa da. Zaratarik edo molestiarik ez badu eragiten, ez diot aretoan taberna eta jatetxea egoteari inongo pegarik ikusten. Aretoa ikusi dutenek, argi eta garbi ikusi dute behar diren aretoak ez diola eskolari ezertan molestetzen.

Hasiera-hasieratik zegoen proiektu honetan tabernaren bat egotearen aldeko filosofia. Gure ustetan Udaletxeak dauka areto horretan aurrera eramango diren gauzetan azken hitza. Taberna, jatetxea edo joango dena Udaletxeak erabaki beharko du.

- Udaletxeak zenbat inbertitu dezake? Datorren urteko aurrekontuak egin arte ezin zehaztu nahiz aurrekontuen zati bat ezinbestekoak direnak erosteko erabiliko den.



- Zelan dago aretoa momentu honetan? Bukatzeka dagoela esan daiteke, ekipamendu guztia falta da-eta. Antzerkia eta erakusketa aurrera eramateko aukerak alokatu behar izan ditugu, argiei potentzia gehiago eman...

- Zein material falta zaio aretoari? Teknikaria aztertzen ari da. Hasiera batean aukerak eta eszenarioaren gaineko fokoen entramatuak zenbateko kostua izango duten aztertu beharko da. Esze-

narioak erosi diren telesiaren kontrako tratamendu bat ere eman beharko zaie. Aretoa txikitzeko moduak ere aztertu beharko dira.

- Hau guztia noizko? Gure ustetan egokiena, hurrengo urtean erostea da. Horretarako aurrekontuetan sartu beharko direlarik. Gertatzen da ez dagoela bat ere argi nork gestionatuko duen lokala, Udaletxeak, Goibekok... Egokiena guztiook hitzegitea izango da, erosiko den ekipamendua denon-

Kulturako zinegotzia: Udaletxeak, ekintzak finantzatzeko dirua jartzea izan daiteke irtenbidea."

tzako egokia izateko.

- Ezagutzen duzu "Espaloia"? Bai. Zer iruditzen zaizu? Argi daukagu, bai batzordean eta bai bestela egokiena aretoa kultura talde batek gestionatzea dela. Kultura talde horrek aretoa behar den kondiziotan hartzeko modua aurkitu beharko da. "Espaloia" proiektua oso interesgarria da, sortu diren arazoak Udaletxetik konpondu behar dira, tabernagatik dagoen arazoa ez da-eta Goibeko eta Guraso Elkartearen artekoa, taberna ipintzeko asmoa lehenagokoa zen. Horrelakoak, proiektuak egiterakoan herriko beste taldeekin kontaktzen ez delako gertatzen dira.

- Ikusten diozu pegarik proiektuari? Momentuz Guraso Elkarteak ez du ondo ikusten taberna, nik nahigo dut horretan ez sartzera. Kultura bultzatu behar dela argi badute, dagoen arazoa konpontzeko erresponsabilitatea daukate. Taberna ekinga finantzatzeko bada eta Gurasoak ez badatoz bat tabernarekin, Udaletxeak ekinga horiek finantzatzea litzateke irtenbidea.

- Badauka Udaletxeak diru hori jartzeko posibilitaterik? Hori hurrengo urteko aurrekontuetan preferentziak markatzea da. Kultura bultzatu nahi bada, ekonomikoki lagundu behar da.

Gabonetako hiru-txirlo txapelketa

Joseba Plazak irabazi zuen


Azken tiraldia Jose Antonio Gaztelurrutiak irabazi zuen

Joan zen zapatuan amaitu zen urtero jokaten den polikiroldegiko hiru-txirlo txapelketa. Giro aparta izan genuen bolatokian, azken tiraldia zela eta ohi-koa baino jende gehiago bildu zelarik. Aipatzekoa ere gazteek duten bolatarako grina, gero eta gehiagotan ikusten ditugu gazteak bolotiraldietan. Honela ba, irabazlea parte hartzaileetako gazteenetakoa izan zen.

Tiraldi guztietako txirloak batuta guztira 14 bota zituen Joseba Plazak. Txirlo kopuru bera bota zuen Elgoibarko Xabier Osorok baina jokaturako azken desentatean galdu egin zuen bigarren postuan ere berdinketa izan zen 13 txirlorekin eta hemen ere desentate bat jokatu behar izan zuten. Eibarko Jaime Ulazia izan zen hirugarrena eta Pedro

Goenaga laugarrena. Gau hartako tiraldian Jose Antonio Gaztelurrutia berriztarra izan zen irabazlea 5 txirlorekin. Bigarren Sabin Arriaga (Markina) 5 txirlorekin. Hirugarren Pedro Goenaga Ondarroakoa 3 txirlorekin.

Lehendabiziko elgetarrari saria Sebastian Arantzabalek jaso zuen.



Joseba tiraldia eta gero garaikurra jasotzen antolatzailearen eskutik.

Estampaciones Intxortak partidurik galdu gabe jarraitzen du

Zazpi partidutik zazpi irabazi ditu

Txapelketako lehendabiziko buelta jokatu ostean jokaturako partida guztiak irabazi dituzte Elgetakoek. Denera zazpi jokatu eta bat edo beste kenduz, nagusitasunez atera dituzte aurrera partidurak. Hala ere, bigarren doan taldeak partidu bat

galdu du eta gertutik jarraitzen du talde Elgetarra. Elgetarrek ezin dute akatsik egin. Talde hau izan liteke elgetarrei gauzak zail ipini diezaioken bakarra. Bitartean elgetarrek ez dira gehiegi konfiatu behar, eta partidatarra jokalaria orain arte

bezala joaten badira txapelketa bereganatzeko aukerak handiak dituzte.

Eibarren jokaturiko azken partiduan, sailkapeneko azken postuan zihon taldea izan zuten arerio. Elgetarrek 65 puntuko aldeaz irabazi zuten.

Aurkako taldeak 10 puntu sartu zituen bitartean elgetarrek 75 puntu sartuz. Seguruena Eibarko saskibaloiko txapelketan jokaten ari direnetik alde handienaz irabazitako partidua.

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

45 haur jardungo dira abenduaren 28tik 30ra gabonetako pilota txapelketan

Haur guztiek izango dute bere saria

Abenduaren 28an, egue-
na, hasiko da urtero Elge-
tako frontoian jokatz-
en gabonetako haur
pilota txapelketa. Alebin,
prebenjamin, benjamin
eta infantil mailako hau-
rrak izan dira izena eman
dutenak. Saillapen parti-
duak esan bezala egue-
an arituko dira goizeko

10:30tan; barikuan ere
berdin. Finalak, berriz,
zapatuan goizeko
11:30tan hasiko dira. Ira-
bazleetaz gain, haur guz-
tiek izango dute saria
partehartze soilagatik.
Sari banaketarako Aitor
Elkoro etorriko da beste
pilotariren batekin. Elge-
tako Udaletxeak, Oskarbi

pilota elkarteak, ETB,
Euskaltel eta Kutxak
emandako laguntzek
ahalbidetzen dute urtetik
urtera sendotzen doan
txapelketa hau.

Eskola-kiroleko neskak bikain

Oso ongi doaz Elgetako
neskak futbol zazpiko

eskola kirolean. 7 partidu
jokatu eta guztiak irabazi
dituzte. Lehendabizi
doaz bigarrenarekin ber-
dindurik. Bigarren, Are-
txabaletako Kurtzebarri
ikastola doa, hau ere 7
garaipenekin. Bien artean
jokatzan dutenean jakin-
go da nor den saillapen-
buru.

X. Uberak 22an DV txapelketako finala Azkoitian

Erdifinaletan Mikel eta Zabala utzi zuten kanpoan

Arratsaldean jokatu-
ko da Azkoitiako fron-
toian aurtengo DV
pilota txapelketako
azkena. Txapelketa
famaduna da egunkari
honek antolatzen due-
na, finalera iristen diren
pilotari gehienei
profesionalerako salto
egiteko aukera eskain-
tzen die. Azkoitiko
Gurea pilotalekuan
Xabierrek, Martinez de

Eulaterekin batera Zor-
notzako Eguzkitza eta
Begoña Naparraren
kontra jokatu du.
Oñatin jokatuak erdi-
finalean nahiko errez
gaitzitu zituzten 35
minutu eskas iraun
zuen partiduan Mikel
eta Zabala. Reunion
Irlan sartutako arantza
ateratzeko aukera
paregabea izango da
biharko finala.

kirol instalakuntzen bileran jende asko

Nahiko jende joan zen
egin kirol instalazioen gaine-
ko batzarrera. Epe motzera-
ko eta luzerako kirol instala-
zioen gainean hainbat pro-
posamen jaso zuten Udale-
txeok. Hauetako proposa-
men bat Oskarbi pilotari
sektoreko eraman zuten.
Frontoiko teilatuaren ego-
ra eskasaren berri emana
zuen. Badirudi teilatuak
berhakako konponketa bat
behar duela. Eskola kirole-
koek polikiroldegi kanpoan
foko batzuk ipintzearen
beharraz hitzegi zuten.
Honekin batera berogailua

aldageletan egotea ere eska-
tu zuten. Aerobikoek gim-
nasioko aparailuen konpon-
keta eskatu zuten. Polikirol-
degira joateko bidean dau-
de baldosen konponketa ere
atera zen mahai gainera,
polikiroldegiko zoruan era-
tzen den hezetasuna nola
konpondu ere bai, squashe-
ko pareta berdintzea ere
proposatu zen... Orain,
Elgetak duen ahalmena
kontuan hartuta eta kirol
teknikariak emandako ahol-
kuei jarraiki prioritateak
markatuko dira.

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

"Pertsona guztiek heziketa eskubidea daukate"

(Giza eskubideen adierazpen unibertsala 26.1 artikulua)

**Miloi bat hildako
miloi bat arkatz
eta eskola-materiala
enbargo genozidaren aurka**

Bilketa kanpaina 2.000eko abenduaren 30era arte.

Zergatik arkatzak eta eskola-materiala?

Arkatzak ekintza militarerako erabil daitezkeela-koan, berauen grafitozko minak lehergaiak fabrikatzeko erabil liteezkeelakoan, gaur EBak eta Britainia Handiak Irakek arkatzak erostea betetzen dute Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan, ez baitituzte "funtsezkotzat jotzen", arbelak, klarionak, koadernoak eta papera beza-

laxe, Segurtasun Kontseiluak hauen fabrikazioa ere debekatua duelarik. Irakeko merkatuan arkatz soldata ertain baten %2 balio du.

Espainiako Estatuan eta hainbat herrialde europar eta arabiarretan, gose eta heriotzazko setio hau salatzen duten erakundeek arkatza eta edozein palasatan izan ohi

diren gauzak (ezabagoma, koloreetako arkatzak, zorrozkailea, koadernoa...) aukeratu dituzte neska-mutiko irakiarrei euren elkartasuna eta solidaritatea adierazteko sinbolo gisa, haurrak baitira, izan ere, Haurren Eskubideen babeserako ezarrita dagoen nazioarteko arautegia nabarmenki urratzen duen enbargo genozida

biktima nagusiak.

Duela 5.500 urte mesopotamian, gaurko Iraken, sortu zen Gizate-riaren lehen idazkera eta gure ekintza herrialde honen hezkuntza eta kulturarako eskubidea defendatzeko hartzen dugun konpromisoa da.


Irakiarrek 24 milioitik gora dira eta euron %40a 15 urtetik beherakoak.

ELGETAN materiala biltzeko guneak: Udaletxea eta Liburutegia.

Informazioa: 943-340404

Diru-aportazioak: k/ k 3035 0776 93 0761047889

SUSTATZAILEA: Iraken enbargoaren aurkako Euskal Herriko Plataforma.



**KONTXI
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**




Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel: 768273



Mª
ESTHER

Tel: 76 81 67



Erretratua: Pedro Gorrotxategi

Domekako hamarretakua Asentzioko txabolan

Beti egon izan da ohiturria domeka goizia Asentzion pasatzekua denpora ona egin ezkerro . Batzuk peskan egittia gustoko dabelako, beste batzuk oinez buelta bat emoteko eta beste batzuk hamarretakua kuadrilan egitteko. Hau erretratuoi holako hamarretako baten ondorian etaratakua ei da.

Bertan agertzen diazenak: **Pedro Karnizerua, Alberto Lopez (Eibartarra), Ezezaguna, Angiozarko Itsua, Julio Panaderokua,, Leonzio Lopez (Eibartarra), Txomin Zuloaga (Eibartarra), Felipon Mantintxonekua eta ezezaguna.**

Bereztasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



ZORIONAK ETA BAKEA GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON

ElGETAKO BURU-DATZARRA



Goibeko k.e.-ko
kide egiteko
aukera
gabonetan.

**Izan
bazkide!!**

